

IRITZIA

Mari Angeles
Expsito

ERREPORTAIA

Umezainak,
gurasoen ordezkoak

UDALETXETIK

Sigma auzoaren
eraberritzeari
buruzko azterketa

RERBETAN

Imanol Alberdi,
Institutuko
euskararen
normalizaziorako
planaren
arduraduna

KIROLA

Eskolarteko Kirola
martxan

KULTURA

Hasier Etxeberriak
ipuin liburua
kaleratu du

B

1987ko azaroaren 14
V. urteko - 213. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Umezainak Gurasoen papera betetzen

"Estima ezazu zure lanbidea apala bada ere" Marco Aurelio

Juaristi aroztegia

Santa Ana, 16 Elgoibar

Tel: 74 29 94



- LEIHOAK
- Egurra aluminioa
- Aluminioa
- PVCa
- AMIRU
- ENPOTRATU'I
- ATEPoK
- TARIIVIAK





MARI ANGELES
EXPOSITO

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratu dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, herriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

Orri bat bete

Gure BARRENen hirugarren aldiz orri bat betetzeko sasoia heldu zait. Orri bat betetzea diot aurreko bietan hori izan delako jaso dudana inpresioa.

Astekari hau sortu zenean helburu nagusienetakoa zen herriko berri, bitxikeria, ipuintxoak, etab. herriko jendearengandik jaso gure hizkuntza, eta aldi berean, euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaleatasuna hartzea. Baina, badirudi, irakurle goa "estapak" begiratzarekin geratzen dela, hein handi batean bai behintzat.

Astekaria gure etxetara heldu eta hurrengo egunetan denek argazkiaren ora-beherak aipatzen dizkizute, edukinaz galdetzerakoan, aldiz, "oraindik" inork ez duela irakurri ohartzen zara, asti falta omen, eta denok badakigu horrelakoak lehenengo eguntan irakurtzen ez badira irakurketa horiek bertan behera geratzen direla. Beraz, inork irakurri behar ez duena zertarako idatzi? Horregatik, idazteko motibazio handirik ez daukat. Dena dela, zerbait egin nahi eta hirugarren aldiz astekari honetan euskara ezagutzen dudanetik kezkatzen nauen arazoa plazaratuko dut. Hau da, hemengo eta hemen bizi den jendearen euskararekiko

desinteresa, azken boladan areagotzen ari den joera, estatistikek kontrakoa esaten badute ere.

Bide honetatik segituz gero, eta herritarrok sendoki aldarrikatzen ez badugu euskaraz bizi izateko dugun eskubidea, zer gertatuko da euskararekin politikoak eraikitzen ari diren Euskadi berri deskafeinatu honetan? Non, bakan batzuk aipatzearen, harrobiai nonahi, haritzak eta pagoak apenas ikus daitezkeen, (pinua, aldiz, gero eta gehiago), ibaiak ezin errekueratu gabiltzan, hondartzak zer esanik ez, atzerritar kulturarentzako egoitza erraldoiak eraikitzen gurea eta euskaldunak diren kulturagileak zapalduak izaten jarraitzen duten bitartean, boterean dauden politiko gehienak, herritarrok aukeratuak, Madrilera begira dauden, eta abar, eta abar, eta abar.

Horrelakorik nahi al dugu? Akaso galdetu digute ea ados gauden egiten ari diren hondamen honekin guztiarekin? Eta euskara? Izango ote gara horren odolotz gure sustraiak, arima eta izana galtzen uzteko?

Agian esaera zahar batek dioena gogoratu behar dugu: Herri batek merezi duena baino ez dauka.

"Bide honetatik segituz gero, eta herritarrok sendoki aidarrikatzen ez badugu euskaraz bizi izateko dugun eskubidea, zer gertatuko da euskararekin politikoak eraikitzen ari diren Euskadi berri deskafeinatu honetan?"





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
137 74 41 12
Publizitatea:
74 37 04
Faxa: 74 37 04

ASGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornalo

AominisTeazioa

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Raia Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Itzi Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta, Itziar Aturia,

Ion Arriela, Agurtzane Arriola,

Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juan Ito Gorostiza,

Ane Guillo, jon Gurrutxaga,

Antton Iriondo, KOKOIE, Imanol Larrañaga,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi, Iban Urizar

Unai Villena eta Julen Zabaleta

BANAKETA ARDUFIADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDA1LUA

SS-1.0313/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



*fundazioa
fundación*
c c c c c c c c c c

4. DANOBAT
MAQUINAS HEFIRAMIENTA

Gauza bakoitzak bere ordua dueia?

Aurreko asteko BARREN esku artean nuela, Zaharrak Berri gehigarrian "Gauza bakoitzak bere ordua du" artikulua irakurri nuen. Artikulua irakurri ostean, bi duda bururatu zitzaizkidan: bat, gomendio hauek adarra jotze aldera plaza-ratu al dira? Eta bi, gomendio hauek edadetuentzat dira ala denok hartu behar ditugu kontuan?

Irakurritakoari bueltaka ari naitzela, nere buruarekin hasi naiz berbetan:

- Eta siesta orduan edo fregaua egiten ari naizenean larrua joteko gogoia izaten badut, zer? Emazteak artikulua irakurtzen badu goizeko 7ak eta 8ak bitartean bakarrik "egin" nahiko du, orduan egoten baikara gizonezkook punturik onenean. Testosteronak omen du errua. Beraz, adi gizonezkook: goizean behar den mailarik ematen ez baduzue, bota toaila! Alferrik saiatuko zarete arratsaldean edo gauean. Badakizue, testosterona kontua da.

- Goizeko 10etatik eguerdiko 12etara omen daukagu burua sasorik argienean. Orain ulertzen dut medikuek zergatik izaten duten anbulategiko kontsulta goizez bakarrik. Arratsaldean lan egingo balute disparateren bat egiteko arrisku handia dago. Goizez bakarrik lan egiten duzuenok, lasai, zuon arratsaldeko atsedena arrazoituta eta justifikatuta dago.

Arratsaldeko 3etatik 5etara atsedean ordua omen da. Galdera bat: goizean larrua jotzen jardun dugulako ala burua askotxo nekatu dugulako da atsedean gomendioa?

- Arratsaldeko 6etatik 8etara kalera irten behar dut jendearekin erla-

zionaizera. Kalera jaitsi eta ez dut inor aurkitu. Batzuk kirolean, besteak informatika ikastaroan eta beste batzuk etxean, asper-asper eginda. Artikuluaren fotokopiak atera behar ditut lagunengan artean banatzeko.

Mekaguen, gaueko 10 eta erdiak dira! Gorputzaren tenperatura jaisten ari zait eta ohera joan behar dut. Bai, lo egin behar dut, bihar goizeko 7etan jarri behar dut des-pertadorea. Emaztea zain izango da.

Dutxa bero bat hartu eta gero, gomendio papera irakurriz irtengo naiz etxetik. Eskerrak zer egin behar dugun esaten diguten jakintsuak baidiren munduan. Bestela, edozer edozein ordutan egiteko kapazak izango ginen! Desastre hutsa, desmadrea.

J.I.Z.

KEXAK

• **10 urteko bi neskato** etorri dira Herriko Antzokian gertatu zitzaiena salatzeko: "Domekan **haurren zinera jun ginan**. Zinera heldu ginan lehenenguetarikuak izan ginan, **15:30erako edo han gaozen. Azkenengo filan jarri ginan eta izkinan**

bost jarleku libre geratu zian. Herriko Antzokikua etorri eta izkinan jartzeko esan zigun, nahiz eta gu oso goiz jun ginan nahi gendun lekuan jartzeko. Gainera, eserleku batian txikle bat zauan pegauta eta lagun bat gainian jarri bihar izan zan".

• Irakurle batek deitu digu zera salatzeko: "Santa **Klara auzoan obretan ari dira**. Mendi-Bide taberna aurrean egin duten espaloian **eskilarak eta ranpa bat egin dituzte. Ezinduentzako ranpa izateko helburuarekin egin badute, ez dakit funtzio hori inoiz beteko duen, oso estua baita** eta handik ez dago erroberadun aulkiarekin pasatzerik".



TXALOAK

• Mujika-Latxa sendiak honako txalo hau bidali digu: "Imanol Mujika gure semeak Mintxeta aldean galdutako sakela aurkitu eta gure

etxeko buzoian utzi zuen pertsonari eskerrak luzatu nahi dizkiogu. Nor izan den ez dakigunez bere jokaera zuzena txalotu nahi dugu".

BAI, ESAN?



Amaia Nogero
Kontsumo Bulegoko teknikaria

Aste honetako telefono deia **Kontsumitzaileen Bulegoko teknikaria den Amaia** Nogeroi luzatu diogu. Udalak laster batean martxan jarri nahi duen OTAri buruz berba egin dugu Amaia-rekin. Erabaki honek kontsumitzaileontzat zer dakarren jakin nahi izan dugu.

Auto jabeok ordaintzen dugun udal zirkulazio zergak ez al digu autoa doan aparkatzeko eskubidea eskaintzen?

- OTA jarritz gero, ezin daiteke esan aparkaleku guztiek dohainekoak izateari utziko diotenik. Leku batzuetan aparkaldi mugatua jarriko da, leku horietan autoen rotazioa egon dadin. Arazoa da elgoibartarrok betikoak ez diren lekuetan aparkatzen ohitu behar dugula.

- OTA ilegala izan daitekeela entzun dugu.

Pertsonalki, OTA ez dela sistema ilegala uste dut. Logikoki, lurra bai da publikoa, baina Udalak herri barruko aparkalekua eta trafikoaren hobekuntza arautzeko gaitasuna dauka.

Txankakua Merkatari Elkartearen Elgoibarren OTA ipintzearen kontrako sinadurak biltzen ari da. Lor al daiteke Udalaren erabakia atzera botatzea?

OTAren kontua gai munizipala eta politikoa da. Ez dakit proiektua aldatzeko asmorik dagoen edo aurrera egingo duten. Hala ere, oso bidezkoa iruditzen zait herriko kolektibo bat kalteua aterako dela ikusten badu, sinadurak biltuz edo beste edozein metodo erabiliz Udalarekin akordio batera iristen saiatzea.



ESKERTZA

1997ko urriaren 30ean, 61 urte zituela hil zen
MARIA ROSARIO IRIZAR GALLASTEGIren sendiak
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Umezainak: Gurasoen ord9zkoak

Plaza Handia, Aita agirre plaza, Giza Eskubideen enparantza, Leku-Eder... Umez gainezka ikusten diren txokoak dira. Gaur egungo gizartean gauzak asko aldatu dira. Gehienetan, edo askotan behintzat, emakumeak eta gizonak, biek egiten dute lan etxetik kanpo. Arazoak serne-alabak iristean has daitezke. Izan ere, gaur egun ez aitak eta ez amak, ez dute denbora nahikoa izaten unzeekin egun osoa egoteko. Beraz, ume-zainen figura izugarri ugaltu da. Bizi dugun langabezia kopurua ikusita, gainera, gero eta gehiago dira haurrak zaintzeko prest azaltzen direnak. Emakumeak, hategi ere. Gaurkoan bi unzezain ekarri ditugu gure artera. Bat hasi berria da eta bestea aspaldikoa dugu zeregin zorretan.



Plaza Txikiko kolunploetan umeak folasean


Arantxa Elizburu umezain profesionala dela esan daiteke. Izan ere, 32 urteko gazte honek 12 daramatza langintza honetan. Administrari ikasketak hasi zituen baina amaitu aurretik umezain izateko aukera eskaini zioten. Arantxak onartu egin zuen, biak, ikasketak eta lana, batera egiteko asmorekin, baina "alferkeriz" administratza alde batera laga zuen eta umezaintzari heldu zion gogotik. "Bokazioa da, umeak pila bat gustatzen zaizkit".

Hamabi urte hauetan lau familiantan egon da lanean eta denetik ezagutu izan du. Hasieran haurrak eskolara eramateaz bakarrik arduratzen zen. Aurrerago, sei hilabete egin zituen intema Donostiako etxe batean, "oso gogorra izan zen. Aste osoa pasa behar nuen Donostian, larunbat arratsaldeak eta igandeak bakarrik nituen li-

bre. Orain arte izan dudana esperientziarik gogorrena izan da. Oso bakarrik sentitu nintzen".

10 ordu egunean

Bi ume zaintzen ditu: Ruben, 6 urtekoa eta Olaiia 14 hilabetekoa. Eguneko 10 ordu egiten ditu lanean, "enkarguak ein, Olaiari biberoia eman, etxeko lanak, bazkaria prestatu...". Arantxak sei urte daramatza familia honekin, "Ruben ondiok jaio gabe zauan eurekin hasi nitzanian. Hazten ikusi ditzut ume bixak eta euren lehen hitzak nik entzun nitxun lehen aldiz". Ez da harritzekoa, beraz, noizean behin Arantxari umeek "ama" deitzea, "normala da, ze nerekin denbora gehixo daude gurasuekin baino". Olaiaren eta Rubenen gurasoek konfiantza osoa dute Arantxarengan, "sekula ez die esan gauza bat edo beste bat ein bihar dotela. Erabaki bat momentuan hartu bihar darian nere esku lagatzen dabe".



Arantxa Elizburu, Rubenekin eta Olaiarekin.



Irune Iriondo maiatzetik dabil umezain.

Kariñoa

Argi dago profesionalak direla euren lanean, nahiz eta profesionaleri hezala ez zaien ordaintzen askotan. Arantxak esan digunez, "batzuetan eman izan dia erreparua umezaina naizela esatiak. baina konturatzen naiz beste lan bat bezain duina dala. Nere orduak sartzen ditzut, responsabilidade haundiko lana da....". Arantxaren esaldi batek ondo baino hobeto laburtzen du umezain lana zein aberasgarria gerta daitekeen, "ume hauek nere poza dia. Kriston kariñoa

hartzten diezu. Nik diruagatik bakarrik aldatuko neuke lan hau eta egunen bati hori pasauko balitz, pena haundixa emango liake umiak lagatziak".

Delineante lanetik umezain izatera

Irunek 34 urte ditu eta dekorazio ikasketak egin zituen. Zortzi urtez arkitekto batekin egin zuen lan, delineante. Gero, bere kontura aritu zen eta beranduago Zumaian taherna bat izan zuen. Maiatzetik umezain dabil. "Kurrikulumak batera eta hestera bialdu arren ez jatan ezer urtetzen. BARRENen irakurri naban familixa batek umiak zaintzeko pertsona bat bihar zabala, deitxu eta aukeria urten jatan". Bi ume zaintzen ditu: Ander, 3 urtekoa eta Iñaki, urte eta erdikoa. Sei ordu egiten ditu lan eguneko eta astebukaerak libre ditu, "ordute-gixa oso ona da eta benetan gustora nao. Ume nausixa eskolara jutun da eta txikixa haurtzaindegira eruaten dot. Goizian etxeko lan batzuk eitzen ditzut eta arratsaldian umiekin egoten naiz".

Irunek zaintzen dituen haurren gurasoak aurretik bistaz ezagutzen zituen, "edade antzerakua dakagu. Generazio berdinekuak izaterakuan idea eta baloriak antzerakuak ditzuzu eta hori inportantia da, ze gurasuak seguridade minimo bat euki bihar dabe euren

umiak ondo haziko ditzuela".

Komentarioak

Iruneri beti gustatu izan zaizkio umeak, "anai txiki bat euki naban eta ohitxu eitzen zera. Garbi dao ezin zerala soldatian zain egon, gauzarik inportantiena hori izango balitz bezela. Umiak pertsonak dia, ez makinak, eta segitxuan konturatzen dia zela tratatzen ditzuzun". Gertatu izan zaio kalean jendeak ea umezain nola hasi den galde-tzea, "dekorazio ikasketak eukitxa jendiak ez dau ulertzen umezain lana eitxia baina neri lan eitxiagatik ez jataz sekula eraztunak jausi". Gainera, gogoan du kontserba lantegi batean lan egin zuen garaia, "12 ordu eitzen nitxun lan egunian, denbora guztia tente, mordua pre-sionatzen zaban enkargau bat onduan, arrain usaina.... Ezin leike konparau! Oingo lana askoz ere politxaua da. Umiek asko ematen dizue, azkenian zeure eitzen ditzuzu eta astia pasatzen danian konturatzen zera zelako lan aberasgarria dakazun". Momentuz kurrikulum-ak bidaltzeari laga dia, "igual beranduo hasiko naiz baina oingoz gus-tura nao. Halere, normala dan bezela dekorazivan urtengo bajatan lanen bat probau eingo neuke ze horretarako ikas-daz gain gehixen gustatzen jatana da, baina momentuz ondo nao umezain".

ANDRES GABILONDO eta MARIA JESUS INTXAUSTI



- Blok egiten duzue lan etxetik kanpo.

- Bai, Mariaje erizaina da eta ni komertziala, beraz, ordu asko pasatzen ditugu etxetik kanpo lanean.

- Bi seme dituzue: Ander eta Iñaki.

Bai, Anderrek hiru urte eta Iñakik urte eta erdi.

- Umezaina daukazu. Zeri begiratu zenioten bat edo beste bat aukeratzeko orduan?

- Batetik hizkuntzari, ze oso garbi geneukan euskalduna izatea nahi gen uela. Beste-

tik, ez genuen neska gazte bat izatea nahi, Nahiago genuen helduagoa, azken finean zure semeak bere esku laga behar ditzuzu eta esperientzia piska bat behar du gauza desberdinen aurrean umeak nola hezi-

tu jakiteko. Konfiantza osoa izan behar duzu berarengan, zure semek bere esku lagatzen ditzuzu eta.

- Zein da zuen arteko harremana?

- Batez ere bi eratakoak dira, bata berak zuzenean umeekin duena eta bestea gurekin. Gurasoekin harreman onna eta komunikazioa izatea inportantea da baina guretzat inportanteagoa da umeekin harreman onna eukitzea, umeen arazoak ulertzea... Bigarren ama bezala da, berarekin gurekin baina denbora gehiago pasatzen dute eta.

- Umeak hain gutxi ikustealc ez al dizue penarik ematen?

- Bal, ze askotan goizean umeak esnatu aurretik alde egiten duzu eta gauean bueltatu orduko ohean da ude.

- Konturatu orduko, beraz, umeak hazita.

- Bai, konturatzen zara askotan galdu egiten ditzuzela gauza asko eta Irunek, umezainak, kontaktu gehiago duela haurrekin zuk baino.

- Halere, haurrek garbi dute gurasoak zein ren eta Irune nor den, ez?

Bai, bal, oso argi. Gainera, nabaritzen da askotan gurasoen beharra dutela, nahiz eta umezainarekin oso gustura egon. Etxera joan eta semeak gainera botatzen zaizkizula ikusteak asko betetzen zaitu.

Zer begitantzzen zalzu jatetxeetan erretzea debekatzea?




JOSUNE URRESTI
47 urte, klinika laguntzailea

Jendiak ez halu erreko hobe. Neretzako ondo dao. Neri traba eitzen dia jaten nauan hitxartian bateonbategen erretzia. Bestela bi zona ein deixela.




JUAN PEDRO HIDALGO
30 urte, okina

Ni erretzailea naiz eta ez zait hatere ondo iruditzen, noski. Debekatzea zorrotzegia da. Egin dezatela beste leku batzuetan bezala bi zona bereiztuz.



JOSE MARIA BAUTISTA
63 urte, jubilatua

Gaizki, erretzailea naiz eta. Halere, jatetxeetara noanean jendeak bazkaltzen amaitu arte errespetatu egiten dut. Hohe litzateke erretzaileak eta ez erretzaileak hanatzea.



CLAUDIO MONREAL
40 urte, tabernaria

Erretzailea naiz eta ez dot ondo ikusten. Hori bai, jendeak ez erretzeko eskatzen badit, kaso egiten diot. Halere, debekatzea oso gogona. Hobe erdi hideo soluzio bat topatzea.



ELOISA ZUBIAURRE
43 urte, etxekoandrea

Duela 5 urte laga nion erretziari eta oin traba eitzen dia jaterakuan bateronbategen erretziak. Baina lehenguaz ere akordatzen naiz eta alde bixak ulertzen ditzut.



NEREA EZKURRA
30 urte, administraria

Debekatzea ziharo ez jata iruditzen. Alde hat enetzailientzako eta beste hat ez erretzailientzako ipintzia hobe egongo litzake, jendiak aukera bixak eukitzeko.

LASA
JATETXEA



OZAETA JAUREGIA
(Bergarako
hegoaldeko irteera)



Tei: 76 10 55 BERGARA

EZKONTZETARAKO
JANGELA
ZABAL eta APROPOSA

PARKING PRIBATUA
TERRAZA
eta LORATEGIA

Astc honctfiko
DEGLISTAZIO MEN L1A

Ahofe gibelczko aspice irtifotiro

Howklorn papillotte-o Derrwil soitsotan

115ftsliz Deletolio zopioR

Oreino erretti guzioirt, stwor eto groseilen
frota-jeled purcarekin

AtmendrozRoloizoldo

Ogia, 3 urtelio litro ercliftn ordoti ecto
ur inineralo, koreo eto prtiti fotirs-ali

5.300 ptd. + BEZ (%)
Guzlia eixean egina

70 78 77

eualhe nropeuuqui

8/8!

rffox

ePID

-cpmickPANtocm
-yulwaf
-yulwaf
Ato trevc dtp b0za
•fxwxupqi

ELPOL041;
of1/4 unvaltcrq ixte
: 1.4³ 1²44XPES

-cipmgq³mlb³qmPqmA
1¹ ~ P ~ : ~ 1¹
WIMPotrillirifrcLOPP⁶
Notravcdtre b±e
•fluilupqi.pes

-xauwclvwclvwclvwclvwcl
-qvwclvwclvwclvwclvwclvwcl
-wclvwclvwclvwclvwclvwclvwcl
clvwclvwclvwclvwclvwclvwcl
sadclvwclvwclvwclvwclvwcl

-cluvOciaMbnvq³clivigik
1³4¹ 1⁰ PcP4v
tilm.4 41, 1⁶ fixl LOP
Fyk mo urevokre
4¹/4 4-4111135

eunznp Jetpq
ucauaznz

• **Sinadura hilketa OTAren kontra**

Txankakua Elkarrekin OTA jartzearen kontrako sinadura bilketa kanpaina hasi du. Txankakuako denda bakoitzean orriak jarri dira bertan sinatu ahal izateko. Txankakuako kideen ustetan, "OTAk kalteak baino ez dizkigu ekarriko herriko dendari txikiei. Lerunen supermerkatu handi bat egiten bada, han autoak doan aparkatu ahal izango dira eta hori desabantaila da guretzat. Kontuan hartu behar da jende askok errekaduak autoarekin egiteko ohitura duela. Kalean autoa aparkatzeko ordaindu behar izateagatik edo aparkaldia mugatua delako erlojuari begira ibili beharzagatik errazago joango da jendea superfizien handi batera erosketak egitera eta ez herriko denda txikiak."

• **Nafarreara txangoa**

Jubilatu Etxeak Nafarroako Iratxe herrira irteera antolatuta du abenduaren 10erako. Goizeko Setan aterako da autobusa Plaza Handitik eta gau partera egingo da itzulera. Jubilatutako zuzendari-tzaren eman behar da izena.

Alkorta eta Unzueta lantegi zaharra botatzen hasiko dira laster

Lur horietan etxeak egitea aurreikusten da

Eusko Jaurlaritzak eraikin zaharrek botatzeko diseinatutako planaren barruan, Elgoibarko Alkorta eta Unzueta lantegi zaharra botatzea aurreikusten da. Aurten Eusko Jaurlaritzak Deba Beheko bailara osoan botatuko duen eraikin bakarra da. Jaurlaritzaren programa honek pabilioi industrial zaharren jabeek diru laguntzak eskaintzen dizkie eraiketarako lanak sortzen dituen gastu guztiak ordaintzeko. Terreno horiek urbanizatzen hasten diren momentuan jabeak dirua itzuli behar du interesik ordaindu gabe. Urbanizaziorik egongo ez balitz, jabeak 10 urteko epea

dauka dirua itzultzeko.

Ermuaranbide kalearen hasieran dagoen Alkorta eta Unzueta tailerra laster batean hasiko dira botatzen. Egunotan tailerrean dauden tresnak eta makinak erretiratzeko ari dira. Alkorta lantegia ez ezik, beste eraikin batzuk ere arau subsidiarioen arabera ordenaziotik kanpo daude: Alkorta telarra, Jarve lantegia eta Alba fundizioa, esaterako. Lantegi zahar hauek dauden lurretan etxeak eraikitzeko asmoa dago. Proiekturik ez dago oraindik eta lur hauek kontratista ezberdinek erosi dituzte. Alkorta lantegiko lurrei "Madala 1" izena eman

zaio eta Sallobente errekararen ubideratzea eta etxeak egitea aurreikusten da bertan. Jarve inguruari (Pedro Murguruza etorbidearen hasiera) "Madala 2" izena eman zaio eta "Madala 3" Alba fundizioko inguruak osatzen du. Lur hauetan etxeak eraikitzeko asmoa dago.



DEBA NMUEBLE
ETA
GARAIA FINANTZA
AGENTZIA

SALMENTA ETA INFORMAZIOA

Errosario, 34 Tel: 74 42 83 Faxa: 74 42 53

OIERKI IGOGAILUAK
Eh Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

7 7943) 20 35 15 ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanna) • 20600 EIBAR



ZENTRO
PSIKO.MEDIKOA

Gida eta arma baimenentzako azterketak

Larunbatak:
11:00etatik
13:00etara

Goizez: 10:00-13:00
Arratsaldez: 15:00- 17:00
Ostiral arratsaldetan itxita

Ariketza Zuloa, 1 behe (Linzeta ferreteria zena) Tel/Faxa: 20 05 01 EIBAR



Ortopedia

Ortesi, protesi eta laguntza teknikoak

Itziar Sarasketa
Tekniko Ortopedikoa

San Bartolome, 19
Tel/Faxa: 74 35 62

Sigma auzoaren eraberritzeari buruzko azterketa egingo du DEBEGESAK

Auzotarrek inkesta bat jasoko dute etxean laster

Elgoibarko Udala eta Eusko Jaurlaritza Lurralde Antotaketa, Hirigintza eta Ingurugiro saila akordio batera iritsi dira Sigma auzoari buruzko azterketa egiteko. Helburua, aipatu auzoko etxeert egoera hobetzea litzateke. Printzipioz, DEBEGESA arduratuko da azterketa egiteaz eta horretarako kontuan hartuko ditu batetik auzoa nola dagoen osatuta urbanistikoki eta, bestetik, etxe bakoitza zein egoeratan aurkitzen den.

Eskualdeko beste zenbait herriri buruz ere egingo du aipatu azerketa DEBEGESAK, esate baterako Ermua, Soraluze eta Mutrikuri buruz. Hortaz, Gillermo Garate alkateak adierazi duenez, "egokia iruditzen zaigu aipatu enpresa arduratzea

Sigmari buruzko azterketa egiteaz, aurrera begira Eusko Jaurlaritzari laguntzaren bat eskatu beharrean bagaude, pisu handiagoa izango dugu".

Datozen egunetan Sigmako bizilagunek inkesta bat jasoko dute etxean eskutitz batekin batera eta bertan proiektuan kolaboratzea eskatuko zaie. Gogoan izan iaz

antzeko zerbait egin zela Altzolan eta gaur egun, "Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoaren zain gaude azterketaren ondorioak kontuan izanik auzoaren eraberritze plana martxan jartzeko", azaldu du Garatek. Era berean, Udalak Altzolan egin zen azterketaren antzekoa San Pedro auzoan egitea eskatu dio Eusko Jaurlaritzari.



• Europar Batzordeak 36 milioi emango ditu EKAIN II proiekturako

Aste honetan Bruselan izan da Gillermo Garate alkatea EKAIN II proiektua dela. eta. Proiektuaren helburua Deba Behean dibertsifikazio ekonomikoa bultzatzea da, besteak beste, turismoa indartzuz. Europar Batzordea hasiera batean 36 milioi pezeta ena-

terakonprometitu da. Debako Ekain kobetako margoen erreprodukzioa Muttikun egingo da eta batez beste 1.500 milioi pezetako inbertsio eskatuko du. Kobaren erreprodukzioan oinarrituz, turismo eskaintza zabala izango da Deba Beheko eskualdean.




• San Antolineko errotonda argirtatzeko asmoa du Udalak

Elgoibarko Udala eta Alzola sinatu duten akordio baten arabera, epe laburrera San Antolineko errotonda argiztatuko dute. Izan ere, gaur egun zona hori nabiko arriskutsua da, batez ere kontuan izanik jende asko eta trafiko handia egoten dela eta nahiko ilun dagoela. Horregatik, errotonda ingurua, A-8 autopistaren irteera, behar bezala argiztatzeko asmoa dago. Proiektuaren batez besteko kostua 4 milioi pezetakoa da. Diputazioaren esku, geratuko da argiztatzeko sistemaren instalakuntza eta horrek suposatuko duen 3,8 milioi pezetako kostua. Udalak, bestalde, kontsumo elektrikoa eta instalakuntzaren mantenua ordainduko ditu.



ESKERTZA

1997ko urriaren 19an, 64 urte zituela hil zen **PATXI GABIOLA ALTUNA**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako dolurninak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



OAZ ANTZERKI TALDEA

XABIER
MENDIGURENen



Gaur, azaroak 7,

ostirala,

gaueko **22:30etan**

HERRIKO ANTZOKIAN



ELGOIBAFIKO IZARRA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA

CIAJ»):

San Frantzisko, 9
Tel: 74 13 92

a!

11



Gipuzkoako Harakin
eta Txarkuteroen
Elkartea



Azaroaren Zan
egindako zozketan
Enri ke Loiola
Idiakez izan da
irabazlea.

Azaroaren 9ko, 16ko
eta 23ko Real eta
Athletic-en
partiduen emaitza
asmatzen baduzu,
7. 500 pta. ko
erosketak doan
izango dituzu.

Parte hartu duzuen
guztion artean
azaroaren 30ean
KARIBERA bidai
zozketatuko da
Donostian.

**ORAINDIK
AUKERA DUZU!**

Ipetetot

Etxea negurako prest



Aurtengo udazkena benetan epel hasi zen. Are gehiago, hego haize beroa eta egun eguzkitsuak izan genituen irailean eta urrian zehar. Oraindik ere udako kamiseta eta soinekoak armariotik atera gabe genituen hotzaren lehen boladak astindu gintuenean. Eta, ia konturatu gabe, temperatura freskoetatik hotzetara pasa gara. Kalean hotza, eta konturatu orduko etxeko gelak, pasiloa eta komunak hotzak. Horrelakoetan, etxeko giroa epeldu eta goxotuko duten berogailuetara jotzen dugu.

Aste honetako gehigarrian berogailu eta leihoei buruz hitz egingo dugu, beti ere helburua etxe barruko tenperatura mantentzea izango delarik. Hona hemen zenbait pista gai honi buruz.



 **SORALUZE**
AROSZTEGIA




® "Rotura" *dun*
aluminioa
• WENT
modeloko
poliuretanoa
® PVCa
® Bainuko
manparak
® Ateak

FABRIKA:
Olasope, 66
Tel/Faxa: 74 21 03
ERAKUSKETA:
Santa Ana, 3 Tel: 74 36 34

Beroak EIHOLZK hanka egiten badizu. 111.

pp erogailua ipini baina etxea ez bada epeltzen, zerbaitek huts egiten du. Agian leiho zahar horiek dute errua. Leihoak aldatzekotan bazabiltza, artikulua hau irakurtzea komeni zaizu.

Leiho zaharrak kendu eta ganorazko berriak ipiniz gero, etxe barruko hozberoa 3 edo 5 gradutan igotzen da. Kristal bikoitzari eta itxiera hermetikoari esker etxeko beroa hobeto gordetzen da. Gaur egun material ezberdin asko erabiltzen dira leihoak egiteko. Zein aukeratu, ordea?



111,1E
pai SZ
11

PVCa

plastiko sendo bat da. Sasoi batean oso modan egon ziren VCzko leihoak haina gaur egun gutxiago saltzen da. Material au beroarekin okertu egiten da eta leihoek ez dute hain ondoten, Ieku oso hotzetan ernaitza nahiko ona ematen badu ere. Preo aldetik nwskeettetaktta da.

AL,t TMINIOA

aluminioa: Duela 6 bat urte hasi ziren "rotura"zko l toak jartzen. "Rotura puente termico" deitzen zaiona da. Egurrezkoekin batera gehien jartzen direnak dira. Aluminiozko bi perfilak osatzen dute eta harruan material isolatzaile bat darama, kanpoko eta harruko hozheroaren artean "apurketa" sortzen duena, hortik "rotura" izena. I ,odiera ezherdinak daude: 45mm., 50mm. edo 60mm. Prezio-kalitate aldetik merkatuko konpetitiboena da.

- Altsminito hutsa: Gutxt erabiltzen da, "rotura"zkoa nagusitu baita.
- Aluminioa-egurra: Aluminioa eta egurra konbinatzen dituen leihoak dira. Nah i adina kolore konbina daitezke eta estetikoki aukera handienak eskaintzen dituzienak dira. Prezio aldetik, roturazko aluntiniozkoak haino 91,40 garestiagoak dira. Sistema ezberdinak daude: bat, egueTezko leihoari kanpotik aluminiozko errebes-timendua jartzea izango litzateke. Beste bat, lethoa roturazko aluminiozkou izatea kanpotik eta egurrezkoa barrutik. Azken hone-i rotura izan beharrean alurninitt sinplea ere erabil daiteke.


aterialisolatzaile onena da baina garestiena ere bai. Takto atse-na izkinetan esaterako, okertu egiten da.

Aipatutako materialetan zurttik beltzera bitarteko kolore gama osoan egin daitezke leihoak, baita egur itxurarekin ere.

LODOSO LEIHOAK



- PVCa
- Aluminio termikoa
- Poliuretanoa
- Aluminioa - egurra



GURE ERRONKA,
KALITATEA eta
PREZIOA

Ermuaran e, 16 Tel/Faxa: 74 34 90

Berombero

Caur egun, era askotako berogailuak aurki ditzakegu merkatuan, baina oso garrantzitsua da bakoitza behar bezala erabiltzea. Izan ere, batzuetan gehiegizko erabilpena egiten dugu, hau da, benetan behar dena baino ordu gehiago izaten dugu jarrita berogailua eta horrek, ezertarako balio ez izateaz gain, kostua ere garestitu egiten du. Hortaz, zer, nola eta noiz erabili jakin behar da eta benetan baliagarriak izaten dira egunero irrti eta telebistan egiten dituzten iragarpenak.



BEROGAILU MOTAK

- **Radiadore indibidual eta mugikorrak:** Espazio txikiak berotu nahi direnean aproposak. Era askotakoak daude, gehienak elektrikoak: olioizkoak, infragorriak, konbektore estatikoak edo aire konbektoreak.


- **Kaldera indibidualak:** Etxebizitza osoa berotu nahi denean egokiena.

Radiadore txikiak baino potentzia txikiagoa behar dute eta gela guztiak uniformeki berotzen ditu. Kaldera elektrikoak, likidoak edo gasdunak daude. Gainera, termostatoaren bidez tenperatura eta denbora programa ditzakegu.

- **Kalefakzio zentrala:** Eraikuntza handi, publiko eta pribatuetan erabiltzen da batez ere. Garai batean ikatzez funtzionatzen zuten eta gaur egun gasoleoz edo gazez.

- **Berogailu elektrikoak:** Hiru mota desberdin daude. Batetik, zuzeneko kalefakzioa deitzen dena. Honako hau dugu erabiliena. Beroa produzitzen eta ematen du. Era honetakoak dira konbektoreak, eguzki plakak, olioizko radiadoreak eta infragorriak. Bigarrenik, beroa pilatzen dutenak daude. Hauek beroa produzitu eta tenperatura denbora jakin batez mantentzeko. Esaterako, gaez gorde eta goizez berotu. Hirugarrenik, aurreko biak konbinatzen dituzten berogailu elektrikoak aipa daitezke.

- **Tximiniak:** Harrizkoak, hurdinezkoak, tradizionalak edo modernoak; guztiek suarekin funtzionatzen dute. Tximiniek tenperatura eta giro atsegina sortzen dute eta etxean jartzeko aire-toma bat behar da. Gaur egun, gainera, ia edozein txokok balio du era bateko edo besteko tximinia jartzeko.



GARROTTA P, Muguruza, 30 behea
Tel: 74 32 38/70 03 89

ugan pentsatzen egiten dugu lan.
Urteetako esperientziak profesional bihurtu gaitu zure arazoei soluzioa topatuz. maiera bikaina eta itxidura hermetikoa garantizatzen dizugu primerazko materialetan.
eihoak, atepak, terrazako itxidurak, manparak, bainuko manparak, bulegoetako banaketak, etab... instalatzen ditugu.
Eska ezazu aurrekontua inolako konpromezurik gabe.

ZALDUA
Iturgintza
GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK
Urasandi, 26 Tel:74 05 30

JAVI ITURGINTZA
BEROGAILUAK
Iturria tantaka duzula...
☎ 74 14 80
Erretxindi, 1-4 B

Isolamenduak

Gerta daiteke, berogailu on eta herriak izan arren, etxeko tenperatura guk nahi beste ez igotzea. Horren arrazoia, beroak leihoetako zirrikituetatik ihes egiten duela izan daiteke. Egoera horren aurrean lehendabiziko erreakzioa leiho berriak jartzea izaten da, baina badago beste aukera bat ere, leihoak isolatzea alegia.

Leihoak altzairu inoxidablezko burleteekin isolatzen dira, batere obrarik gabe. Lehenik eta behin, leihoak egoera onean dauden aztertu behar da, hau da, ea egurraren kalitatea ona den, sitsak janda ez dagoen eta abar. Leihoak oraindik aprobetxatzeko

moduan daudela ikusita, ertz guztiak burleteekin estaltzen dira. Altzairu inoxidablearen iraupena mugagabea da eta leiho eta ate guztietara egokitzen da. Leihoa ixtean burleteek zirrikitu guztiak tapatzen dituzte haizea, hotza, hautsa, zarata eta beste-lakoak etxe barrura sartzea ekidinez.

Isolamenduaren sistema duela 75 urte inguru sortu zen eta gaur egun izugarri funtzionatzen du. Jakin dugunez, Elgoibarren batez beste eguneko 6 etxetan jartzen da teknika hau. Isolamendu sistema Azpeitiko laborategi homologatuan ikertzen da etengabean eta garantia osoa eskaintzen du.



Tellabide

ITU RGI NTZA

• Berogailuak • Iturgintza • Gos instalakuntzak

Azpilgoeta, 19 41 907 75 50 62 MENDARO

4ro15111

Santa Ana, 16
Tel: 74 29 94

(Ikus 2. orrialdea)

leihoak
Armairu enpotratuak
Ateak
Tarimak

Juan Carlos

Iturgintza, gasa eta
berogailuak

Urasandi, 59-61 behe. Te1:74 34 87



gos contrd isolamenduak

Ubitorte, 7 beheo Tel: 74 30 94
(Ikus kontrolalo, 28. orrialdea)

33 urteko zestoar honek 9 urte daramatza Elgoibarko Institutuan euskara irakasle. Aste honetan berarekin izan gara NOLEGA proiektuari buruz berba egiteko. NOLEGA legegaren helburua euskararen normalizazioa bultzatzea da eta ia jarri zuten martxan Elgoibarren. Momentuz ikastetxearen diagnostia egiten ari dira eta epe laburrera, azterketatik ateratako ondorioak bildu eta motibazioa eta erabilera suspertzeko ekintzak antolatuko dira.

IMANOL ALBERD

"Ekintzen bidez normalizatu nahi dugu euskara institutuan"

—**Zer da NOLEGA?**

- Euskararen Normalizazio Legearen Garapena esan nahi du eta 1982an atara zen. Ikastetxeetan orain arte ezer gutxi egin da eta duela urtebete edo hola eman zitzaigun aukera programa honen barruan sartzeko. Iaz gure proiektua bidali genien eta onartu egin zuten. Hasierran 25 ikastetxe sartu ziren eta aurten pila bat, ehundik gora Euskal Heni mailan.

—**Nondik abiatu zarete?**

- Momentu honetan ikastetxearen diagnostia egiten ari gara, azterketa moduko bat, zein egoeratan dagoen ikusteko. Ondorioak ateratakoan helburu nagusi batzuk finkatu eta helburu horiek gauzatzeko helburu konkretoak jarriko ditugu martxan.

—**Diagnostiaren bidez zer neurtuko duzue zehazki?**

- Euskararen ezagutza,

erabilera eta motibazioa ikasle, irakasle eta ikastetxeko gainontzeko langileen artean. Estamentu guztiak sartzen dira, ikastetxea osatzen duten guztiak, baita gurasoak ere nahiz eta azken hau zailagoa izango den.

—**Nola ari zarete egiten diagnostia?**

- Irakasle eta administrazioko langileei dagokionean nahiko erraza izan da bakoitzaren euskara perfila zehaztua baitago. Zailagoa zen ikasleen artean baina horretarako Elgoibarko Izarra elkarteak inkesta bat prestatu zuen: noiz erabiltzen duzu euskara, norekin eta abar. Egokia iruditu zitzaigun eta ikasle guztien artean banatu dugu.

—**Batzorde bat osatu nahi duzue ikasleekin, ez?**

- Bai, hala da. Momentuz irakasleen artean badago

batzordea eta bertan hitz egiten eta erabakitzen da zer eta nola egin, zein pauso eman behar diren. Aurrera begira gure asmoa ikasleekin gauza bera egitea da, hau da, motibazioa eta erabilera bultzatzeko ekintzak guztien artean antolatu nahi ditugu.

—**Zein da Elgoibarko Institutuaren egoera?**

- Ezagutza maila gero eta handiagoa da baina erabilera kaskarragoa. Oraindik ere pasijoa euskara gutxi entzuten da. Erabilera bultzatzea da erronkarik handiena.

—**Zein ekintza mota izango dira?**


- Irakasleentzako materiala prestatu, Iralera, irakasleak euskalduntzeko zentroa joateko klase partikulanak eman, administrazioari dagokionean informatika gauzatu... Ikasleekin oraindik ez gara hasi, inkesten datuak jaso nahi ditugu aurretik.

—**Halere, aspalditik antolatzen dituzue ekintzak.**

- Bai, hala da: antzerkia, mahainguruak, kontzertuak, bertsolariak, San Juan Bosko eguna, Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketetara aurkezteko idazlanak... Baina orain arte horiek guztiak soltean antolatu izan dira eta hemendik aurrera lotura eman nahi diegu. NOLEGA proiektuari esker ekintza solteak bildu eta helburu jakin batera kanalizatu nahi ditugu.

—**Ekintzak ez dira eskola orduetan bakarrik izango.**

- Ez, eskolatik kanpoko ekintzak ere bultzatu nahi ditugu eta, besteak beste, Elgoibarko Izarrarekin hitz egin nahi dugu. Gurasoak ere inplikatu nahi ditugu, etxean euskara erabil dezaten eta seme-alabak motibatu eta anima ditzaten.



•••• JAIOTAKOAK ••••

- Ioritz Idigoras Andonegi (Urriak 3)
- Eider Garefa Azpiliktieta (Urriak 14)
- Haritz Etxeberria Iturbe (Urriak 20)
- Aitor Maiztegi Alberdi (Urriak 28)
- Jon Etxaniz Tesouro (Urriak 30)

•••• EZKONTZAK ••••

- Isabel Albercti Elorza eta Julio Cuesta Sanz (Urriak 4)
- F. Javier Zabaleta thazia eta Mari Jose Arreitunandia Calderin (Urriak 4)
- Serafin Galindo Muñoz eta Juana Maria Gorriti Iriondo (Urriak 4)
- Jose Juan Garate Zubizarreta eta Elisa Judith Nrez Muñoz (Urriak 11)
- Manuel Alvarez Balzola eta Andrea Arriola Ferrer (Urriak 18)

•••• HILDAKOAK ••••


- Jose Antonia Ansola Goenaga (Urriak 15)
- Jesus Mari Unzilia Agirre, 71 urte (Urriak 13)
- Patxi Gabiola Altuna, 64 urte (Urriak 19)
- Segunda Juaristi Zabaleta, 79 urte (Urriak 24)
- Ramon San Martin Otegi, 57 urte (Urriak 25)

Jose Urresti San Martin (1933-1984)



- 1933ko uniaren 7an jaio zen San Migel auzoko Altzate-Etxetxo baserrian.
- Zazpi anai-arreba ziren, gazteena bera.
- San Migeleko eskolan ibili zen Maria Jesusa Garaialde irakasle zuelarik.
- 14 urterekin "Talleres Zubal"en hasi zen
- Oso gazterik eduki zuen korrikarako zaletasuna. Entrenamenduetan aharia lagun izaten zuen, benetan gustuko baitzuen animalia hau.
- 18ren bat urterekin korrikalari bezala federatu zen C.D. Elgoibarren. Armairu polita bete zuen irabazitako kopekin.
- Sodaduzka Afrikan egin zuen.
- 26 urterekin Alemaniako Hannover hirira joan zen fundizio lanak egitera. Arrebaren etxean bizi izan zen.
- Lantegian 12.000 lagun ziren arren gerenteak begi oneko omen zuen Joxe, Elgoibarrera hilabeteko bidaia egin baitzuen gerenteak. Begira zein anekdota: aleman honek gaueko 9etarako egiten zuen etxerako erretiroa baina Elgoibarren zegoenean askotan erretiratu zen gustura goizaldeko 5etan.
- Hannover-en ezkondu zen izatez galiziarra zen Lourdes Ameneiroekin. 3 seme-alaba eduki zituzten. Beranduago loradenda ireki zuten.
- Hannover-en makina azoka izaten denez, bere lagun Ahdon Ansolak sarritan bisitatzen zuen. "Cadillac" autoarekin etortzen zen Joxe Elgoibara iTeran bisitan.
- 24 urte egin zituen Alemanian, eta Donostian eta Berriatun etxea erosi zuen.
- Atsegina, aiaia eta sinesmenduna zen. Gogokoa zituen herri kirolak eta euskal kantak.
- Sasoi ona zuela, gaixo txarrak jota, hegazkin militar batean ekarri zuten Donostiako etxera. Egun gutxira, 1984ko apirilaren 21ean hil zen 51 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXE13ERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak,

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07



Aste honetako erretratua **Sabin Osorok** laga ditu. Sabineek esan digenez, erretratua Florencian 1957ko abuztuaren 26an atera zuten, duela berrogei urte.

Urte horretan JOC izeneko gazte taldeen topaketak izan ziren Erroman, eta bertan mundu osotik joandako gazteak elkartu ziren San Pedro plazan. Besteak beste, dantzak ere izan ziren eta bi herritakoak aritu ziren dantzan: Tirolekoak eta Elgoibarkoak.

Erretratuan azaltzen direnek San Juan zortzikoa dantza-tu zuten eta neskek sagar-dantza. Sabineek esan digenez,

abuztuaren 24an, San Bartolome egunean, egin zuten dantza San Pedro plaza gainezka zela. Erretratuko zortziak apropos elkartu ziren egun horretan dantza egiteko eta him hilabete inguru egon ziren ikasi eta entsaiatzen. Dantza erakustaile Jose Odriozola izan zen. Txistua, berriz, Iñaki Eginok jotzen zuen, nahiz eta Erromara Julian Iriondo joan.

Beraz, ikus dezagun okasio hartarako prestatutako zortzikotea zeinek osatzen zuten:

Tente ezkerretik hasita: **Emeterio Belaustegi, Vicente Mugerza, Manolo Rementeria** eta **Sebastian Etxabe**.

Belauniko: **Pedro Garate, Sabin Muguruza (*)**, **Jose Luis Arrese** eta **Sabin Osoro**.

ELENA

ileapaindegia

89

Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

**SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA**

Juan lElugerza, 3. z 74 12 56 - (mugikor.) 909 53 23 83



KOLARTEKO ROL "h"

AGENDA

(Azaroak 8. larunbata)

FUTBOLA

■ Benjamin mutilak (Mintxetarn) ■
10:30 Pilar A- Pilar B
11:00 Urasandi - Mendaro A
11:30 Ikas Bulls - Ikas Tximista
11:30 Ikas Gorri Ikas Bihurri
(Erdiko kanpoan)

■ Benjamin neskak (Minixetan) Z1
9:00 Pilar A- Pilar B
9:30 Ikas Hartz - Ikas Beleak
10:00 Ikas Ortzadar Ikas Bizkor

SASKIBALOA

■ Alebin mutilak (Ikastolan) ■
9:45 Ikas Eguzki Ikas Ilargi
10:30 Pilar A- Pilar B
11:15 Mendaro B - Urasandi
12:00 Ikas Espabidubi - Ikas Txut

■ Alebin neskak (Urasandin) ■
10:30 Ikas Planet - Pilar B
11:15 Ikas Laino Urasandi
12:00 Ikas Txingor - Ikas Trumoi

ESKUBALOA

■ Infantil mutilak (Kiroldegian) 111
9:00 Pilar Basafi (Kadeteak)
9:45 Ikas Otsokoak - Institutua
10:30 fkas Bolilla Ikas Axelko

■ Infantil neskak (Kiroldegian) ■
11:15 Pilar A - Institutua
12:00 Ikas Sei - Ikas Beder

Maialen Mora, Egoitz Mora eta Gorka Garate, Gipuzkoako judo txapelkunak

bai Kirol Elkarteko ikasleek Gipuzkoako Judo Txapelketan parte hartu zuten azaroaren lean Eibarko Ipurua kiroldegian. Goizez eta arratsaldez jokatu ziren judo saioak eta kategoriak honako hauek izan ziren: 17, 19 eta 21 urtez azpitik eta seniorrak, nesketan eta mutiletan. Egoitz Mora ederki aritu zen txapelketan, txapelkun bikoitza izan baitzen elgoibartar hau. 17 urtez azpiko kategorian eta 19 urtez azpikoan irabazi zuen Egoitzek, 78 kg.tik gorako eta 86 kg.tik beherako pisuetan. Egoitz borrokaldi guztietan nagusitu zen gehieneko puntuazioarekin.

Maialenek ere txapelketa bikaina egin zuen. 12 urte besterik ez dituen judoka honek 17 urte-tik beherako mailan hartu zuen parte. Adinean dagoen aldea handia izanda ere, batzuk 4 urte zaharragoak ziren, aurkari edo kontrario guztiei irabazi baitzien puntuazio altuena lortuz. Gorka Garatek, bestalde, 71 kg.ra arteko pisuan, 19 urtez azpiko kategorian, etsai gogorrak izan zituen aurrez aurre, baina urteetan lortutako esperientzia eta teknikari esker erraz irabazi zuen.

Gainontzeko elgoibartarrak ere ez ziren makal aritu. Xabi Gonzlezek brontzezko domina lortu zuen 55 kg.tan; Josu Idiakezek brontzezkoa 65 kg.tan eta Zuhaitz Azpiazuk ere brontzezkoa baita ere 60 kg.tan.

Abenduan Ibai Kirol Elkarteko 36 lehiakide Tolosan eta Eibarren izango dira, berriz, nazioarteko izaerako lehiaketan parte hartzeko.



Hona hemen Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten Ibai Kirol Elkarteko judokak.

KIROL ALBISTEAK

• Behobia-Donostiara joateko autobusa

Igandean, hilak 9, izango den Behobia-Donostia lasterketarako Udal Kirol Patronatuak antolatutako autobuserako 21 lagunek izena emanda zuten asteazkenerako. Patronatukoek esan digutenez, "iganderako beteta egongo da". King-Kong-eko zubitik irtengo da autobusa goizeko 8:30ean eta Donostiako portutik 2ak Iaurden gutxi aldera aterako da Elgoibar aldera. Iaz 40 bat elgoibartarrek korritu zuten Behobia-Donostian eta aurten ere beste horrenbeste edo gehiago izango dira seguraski. Behobia-Donostia lasterketaren ostean, handik 15 egunera zehazki, marathoia korrituko da Donostian. Jakin dugunez, han ere izango da elgoibartarrik.

• Alzeratutako areto futboleko partiduak gaur, hilak 7, jokatuko dira

Joan den ostiralerako, urriak 31, iragarrita zeuden areto futboleko partiduak ez ziren jokatu. Elgoibarko Areto Futboleko 1. mailako eta maila autonomikoko taldeek etxean jokatu behar zituzten bi partiduak gaur, hilak 7, jokatuko dira Kiroldegian. Lehen mailako taldearen partidua gaueko 22:10ean hasiko da eta Cal Boulevard taldea izango dute aurrez aurre. Maila autonomikoko norgehiagokan elgoibartarrek Promociones Madaya taldekoen aurka jokatuko dute.

Larunbatean, hilak 8, hasiko dira Eskolarteko Kirolak

400 haur arituko dira bi teknikariren ardurapean


Larunbatean, hilak 8, Eskolarteko Kirolen programa berria jarriko da martxan. Gipuzkoako Aldundiak Eskolarteko kirolen plangintza berria zabaldu nahi du herri guztietara eta Elgoibarren aurten jarriko da martxan. Arrasaten, Bergaran, Deban eta inguruko beste herri batzuetan aspalditik dago martxan Eskolarteko Kirolen antolamendu hori.



Eskolarteko Kirolen programna berria dela eta, bi teknikari kontratatu dituzte: Aitor Kapanaga (ezkerrean) eta Gorka Sastre (eskuman).

Idundiak bultzatzen duen programaren burua Eskolarteko Kirolak egitura egonkor bat izatea da. Proposamen berri hau iaz hasi ziren aztertzen herriko hiru ikastetxeak eta Mendaroko ikastola, azken finean ikastetxeak baitira programa hau onartu eta antolatzen dutenak. Ikastetxe bakoitzean inkestak egin ziren programak izango zuen harrera neurtzeko. Haurren partehartzea aurreko urteetakoaren antzekoa izango zela ikusita, ikastetxeek programarekin aurrera egitea erabaki zuten. Zehazki esateko, aurten 400 haurrek eman du izena.


Horrela, Eskolarteko Kirol Batzorde bat eratu zen, ikastetxe bakoitzeko ardura-dun batek eta Udal Kirol Patronatuko zuzendariak osatzen dutena. Eskolarteko Kirolen koordinaziorako teknikari baten beharra zegoela ikusi zuen batzordeak. Horrela, teknikariaren perfila zehaztu zen: euskalduna, elgoibartarra eta Hezkuntza Fisikoan lizentziatua izatea. Perfil hau betetzen zuten elgoibartarrei deitu ondoren elkarrizketa egin zitzaion eta Aitor Kapanaga eta Gor-



ka Sastre hautatu zituzten. Bi teknikari hauek dira, herriko klubetan laguntzarekin, eskolarteko kirolen plangintza zehaztuko dutenak: kirolen egutegia diseinatu, klubetan eta instalakuntzen koordinazioaz arduratu, etab.

Eskolarteko Kirolean parte hartzen duen haur bakoitzak 3.000 pta.ko kuota ordaintzen du urteko. Kirol eskaintza orain artekoa baino zabalagoa izango da. Taldeko kirolez aparte, naturarekin kontaktuan egiten diren kirolak ere egongo dira, sasoiaren arabera bat edo bestea egingo delarik.

Herriko kirol klubetan partehartzea estuagoa izango denez, astean zehar entrenamenduz klubetako pertsonak arduratuko dira. Hala ere, entrenatzaile la-



netan aritu diren gurasoek zeregin horretan jarraitzeko aukera izango dute.

Orain arte 14 urtera arteko haurrak ziren Eskolarteko Kirolean parte hartzen zutenak. Plangintza berriari esker, 16 urtera arte luzatuko da adina. Hortaz, benjamin, alebin eta infantilez aparte, kadeteen kategoria ere izango da.

Lehen hiru hilabeteetan benjaminen areto futboleko jokatu dute; alebinak saskibaloian arituko dira eta infantilak eskubaloian. Hiru hilabetez behin kategoria bakoitzean kirolez aldatuko da, hurrengo kirol guztietan jokatzeko aukera izan dezaten. Partiduak larunbatetan izango dira eta esan bezala, astean zehar, beste ekintza batzuek eskainiko zaizkie haurrei.

111_1112_2.Y_1	---
Futbola	
Beasain 2 - Haundi 0	
Hamaika Bat 0 - Elgoibar 2 (2. erreg.)	
Pedrusko 0 - Zarautz 3 (2. erreg.)	
Elgoibar 2 - Gruces 0 (Oho. inf.)	
Elgoibar 2 - S. Patricio 5 (1. jub.)	
Aldapelarrak 3 - Elgoibar 1 (Kad.)	
Elgoibar 0 - Lagun Onak 1 (Int.)	
Saskibaloia	
Martiko Amigos 76 - Elgoibar S.T. 68	
Eskubaloia	
Usurbil 11 - Pagoaga Elg. 19	
(Jub. nes.)	
Elgoibar 24 - Hondarribi 23	
(Seniorrak)	
TWE N D A	
Futbola, Mintxetan	
Larunhata, 8	
12:00 Elgoibar - Aurrera (Kad.)	
16:30 Elgoibar - Urki (2.erreg.)	
Igandea, 9	
12:00 Elgoibar - Antiguoko (Int.)	
17:00 Haundi - Zaragoza	
Eskubaloia, Kiroldeqian	
Larunbata, 8	
17:00 Pagoaga Elg. - Arrasate	
(Jub. nes.)	
Areto Futbola, Kiroldeqian	
Oslirala, 7	
22:10 Elgoibar - Cafe Boulevard	
(1. maila)	
23:10 Elgoibar - Pro. Madaya	
(Auton.)	
Saskibaloia, Kiroldeqian	
Larunbata, 8	
10:00 Elgoibar S.T. -Haurtzaro Ikas.	

Esteban Urkiaga
Lauaxeta

Arrats beran

AHAZTU BEHAR EZ DEN POETA

Aurten Lauaxetaren heriotzaren 60. urteurrena bete da, 1937ko ekainaren 25ean afusilatu baitzuten indar frankistek.

"Arrats beran" liburua 1935ean argitaratu zuen Esteban Urkiaga "Lauaxetak". Lau urte lehenago plazaratu zuen "Bide barriak" haren ondorengoa da. Liburu hura berri-tzailea izan zen, erromantizismo eta sinbolismoaren hai-zeak ekarri zituelako euskal literaturara. Horrexegatik kritikak jaso zituen, maila jasokoa zelako eta ulergaitza egiten zelako, Badirudi eztabaidek eragina eduki zutela idazle bizkaitarrarengan eta "Arrats beran" honetan badago poesia erraza-goa egiteko nahia. Horrela, bertsoaren moldeetatik hurbil dauden poemak aurkituko ditugu. Baina Laukinizen jaiotako olerkariak ez die uko egiten Europako literatur korronteei eta sarri askotan modernismoaren arrastoa somatuko dugu.

Olerkari abertzaleak bertako gaiak, gertuko lanbideak eta hemengo jendeen berri jasotzen du bere poemetan. Present da baita ere euskal aberriaren kezka. Euskal Editoreen Elkarteak "Masikoak" sailean argitaratutako liburu honek baditu poema bat baino gehiago irakurzale eta irakurzale ez den euskaldunak ezagutu beharko litzuzkeenak.

Jon Eugi


"Karramarroaren aztarnak" ipuin liburua argitaratu du Hasier Etxeberriak

Hasier Etxeberriaren azken liburua argitaratu berri da: "Karramarroaren aztarnak". Joan den astean egin zuen Hasierrek liburuaren aurkezpena Donostian, Joxerra Garzia eta Elkar argitaletxeko Xabier Mendigurenek lagunduta. Garziak eta Mendigurenek Hasierren azken lana biziki goraiatu zuten.

4 4 **K**arramarroaren aztarnak" bost istorio, bost bidaia ezberdinen bilduma da.

Lehenak Europa zeharkatzen du, hurrengo biak Brasilen gertatzen dira; laugarrena Mexikon eta azkena idazlearen ohetik bertatik mugitu gabe. Liburuan argitaratutako bi ipuin lehiaketa ezberdinetan saritutakoak dira: "Ipuin post-moderno bat egin diot neure buruari" izenekoa Gabriel Aresti ipuin lehiaketan irabazlea izan da aurtan. "Horazio- ren bidaiak" izenburukoak, berriz, Zumaiako Julene Azpeitia lehiaketan bigarren saria jaso du.

Hasier Etxeberriak kazetaritza lanetan jarduten du. Kultura programak zuzendu eta aurkeztu ditu telebistan eta iritzi artikulua kaleratzen ditu prentsa idatzian. Gaurdaino bost liburu plazaratu ditu "Karramarroaren aztarnak" aurretik: "Ipuin ezberdinak eta erregalokoak" (1981), "Estatua baten historia" (1988), "Mugetan" (1989), "Alajaineta" (1995) eta "Sukaliztegi partikularra" (1997).



Goian, Hasier Etxeberriaren liburuaren azala. Ezkerrean, Hasier Etxeberria idazle elgoibartarra.

• Taupadak antolatutako antzerkilaritza ikastaroa

Taupada antzeztaldeak helduei zuzendutako antzerkilaritza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa azaroan eta abenduan izango da ondoren zehazten diren egunetan: azaroaren 11, 18 eta 25ean eta abenduaren 2, 9, 16 eta 22an. Taupada taldeak San Roken, Kiroldegiaren ondoan

duen lokalean izango dira klaseak arratsaldeko 19:00etatik-20:30era bitartean. Izena emateko 74 36 55 edo 74 04 78 zenbakietara deitu (Jose Mari Larratiaga edo Edurne Lasa). Izena ernaterakoan 3.000 pta. ordaindu beharko dira. Ikasle kopurua mugatua da.



Medori buruz bi hitz



IZASKUN SARRIUGARTE

15 urte

- 1 • Bai. Praxak jazterakuan beti eukitzen dot kontuan gainetik zer ipiniko doten.
- 2 • Gauza batzuk bai baina beste batzuk ez. Niki pegau-pegauak eta motzak ez ditxut jazten baina ez dot ipintzen oin dala 20 urteko erropia.
- 3 • Kolore fosforituak ez nitxuzke jantziko.
- 4 • Bakeruak eta kamiseta bat jazten ditxut normalian bai astegunetan eta baitxa astebukaeretan ere.
- 5 • Bakaladeruak eta katiekin eta txapa mordo batekin ibiltzen diazenak ez jataz gustatzen.
- 6 • Euskadi Gaztea entzuten dot eta abesti batzuk gustatzen jataz eta beste batzuk ez.
- 7 • Belarri batian hiru zulo dakat eta bestian bi baina gorputzian ez neuke beste zulorik ingo. Tatuaje bat ere igual bai, tximeleta txiki bat edo...

ANDONI URBIETA

15 urte

- 1 • Oin lehen baino gehixo igual, baina ez exageraua.
- 2 • Jarraitxu ez baina batez ere marka batzuk erabiltzen ditxut: bakeruetan Levi's-ak, txandalian lehen Adidas...
- 3 • Kolore bizixak ez: gorrixa, horrixa... Atentziva deitzen daben gauzak ez.
- 4 • Antzerakua da baina zapatuetan igual gehixo zaintzen dot. Bakeruak eta kamiseta beltza normalian.
- 5 • Beti deitzen dizu atentziva batzuk zela jazten diazen eta nahixo dozu igual elegante jutia baina hori ez da inportantiena.
- 6 • Radixuan entzuten dot botatzen dabena. Ez dakat talde faboritorik.
- 7 • Igual ile luziaua edo perillia eta holakuak bai baina gauza raruak ez, patilla luzerik ez jata gustatzen.



AITOR ARAKISTAIN

16 urte

- 1 • Lehen amak esaten ziana jazten naban. Oin nik nahi dotena jazten dot eta gehixo begiratzen dot gustatzen jatan edo ez.
- 2 • Oso gutxi. Bakeruak, txandala... betikua jazten dot. Komodadiari begiratzen diot batez ere.
- 3 • Neri erropia lisua gustatzen jata batez ere, dibujo asko gabe.
- 4 • Zapatuetan gehixo begiratzen diozu erropiari lagunekin kalera urtetzeko. Astegunetan batez ere txandalakin ibiltzen naiz.
- 5 • Zapatuetan ikusten dian bakaladera horiek behintzat ez jataz gustatzen. Normal juten diazenak, ni bezela.
- 6 • Metallica, Su Ta Gar eta holakuak gustatzen jataz baina ez modan daudelako.
- 7 • Ile luziaua lagako neuke baina helarritxakuak ipini eta holakuak ez.

Nork esango zigun duela pare bat urte kanpanadun praxak erosi eta kalera dotore-dotore eginda aterako ginetik? Edo kolore disdiragarriekin gustura ibiliko ginetik? Kontua da, modaren tiraniak etengabe an astintzen gaituela komunikabideetan, aldizkarietan, denda guztietako eskaparateetan eta guk, nahi eta nahi ez, moda hori jarraitu edo, behintzat, egokitu egiten dugu. Gaur egungo gazteek jazkeraren inguruan zein iritzi duten jakin nahi izan dugu.

1 • Ematen al diozu garrantzirik jazkerari?

2 • Jarraitzen al duzu moda?

3 • Sekula jantziko ez zenukeena?

4 • Berdin jazten al zara astegun eta astebukaeretan?

5 • Begiratzen al diozu nesken/mutilen jazkerari?

6 • Musikari dagokionean, zer?

7 • Perila, tatuaiak, piercing-a...

SUSANA TORRES

15 urte

- 1 • Batzutan bai baina behin gauza bat jantzi dotenian ez naiz hasten kendu eta beste bat ipini eta hola.
- 2 • Ez, gauza bat modan daualako bakarrik ez dakat ohixuria jazteko. Gustau ein bihar jata eta ondo geratu.
- 3 • Koloriak eta ondo badatoz printzipioz edozer jantziko neuke. Bueno kanpana haundixak eta hola ez.
- 4 • Antzera. Igual astebukaeretan txandala ez dot jazten baina bestela antzera beti.
- 5 • Bakeruekin eta sudadera normal batekin jazten diazenak gustatzen jataz gehixen.
- 6 • Irratixa entzuten dot, danetik piskat. Ez dakat talde bat bestiak baino gehixo gustatzen jata modan daualako.
- 7 • Ez nuke ezer ere ingo. Al-datzia gustatzen jata baina pasau gabe.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak	461111
Txanda hartzeko	743354
Planning-a	742950
Alkoholiko Anonimoak ..	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitalea	756264
Odol Emailak	743936

GAR RAI DAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala ..	756100
Ongizate zerbitzua	741008
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	741626
Kiroldegia	744415
Kontsumo Bulegoa ..	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
M intxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547
Gaztetxea	741357

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza ..	740296
Zaharren Biltokia ..	740526

IKASTETXEA

Haur Eskola	74 21 41
Herri Eskola	74 08 79
1.M H.....	74 41 32
Herri Institutua	
Arreitu rre	74 02 67
Ezenarro (Meka) ..	74 44 80
Ikastola	74 44 41
Pilar Ikastetxea	74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo	74 10 82
Egin	10 84 21
Zazpiki Irratia	74 34 74

7 ostirala

19:30 HITZALDIA
Gaia: anorexia nerbiosoa eta bulimia
Hizlaria: Mertxe San Nicola's
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

22:30 ANTZERKIA
Antzezlan: "Larrialdiak"
Antzeztaldea: Goaz Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte

8 larunbata

12:00 ZAZPIKIREN BILERA
Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
"El color de las nubes"

22:30 KONTZERTUA
"El Desval del macho" eta "Cafel teatro" taldeak
Gaztetxean

9 igandea

12:30 KOMIKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA
Kultur Etxean
Antolatzailea: KOKOE
Komiki Elkarte
16:30 ZINEA
"De jungla a jungla"
19:30-22:15 ZINEA
"El color de las nubes"

1 asteleena

22:15 ZINEA
"El color de las nubes"

asteazkena

20:00 HBREN BILERA
Gaia: Elgoibarko presoak
13 urte gartzelan
Kimetz elkarte

13 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
"El ogro"

14 ostirala

22:15 ZINE KLUBA
"El ogro"

■ 1 • • • IE ■ 111 • IR 11 • • • IR EI • • 11 • •

11 NE A



Zuzendaria: Mario Camus
Antzezleak: Julia Gutierrez Caba, Ana Duato, Antonio Valero.

• • ■ 1111 • IIII 111 • • • 111 • • ■ 111 IIII • • 111 ■

El color de las nubes

Cantabrian dago kokatua istorioa. Emakume bat, arrantzale bat, produktu ekologikoak saltzen dituen gazte bat, trafikante talde bat,... pertsonaia ezberdinen bizitzak nahastu egiten dira abentura batzuk direla medio. Adis-kidetasuna eta maitasuna, anbizioa eta biolentzia; aurrez aurre topo egiten duten sentimenduak dira.

• **Bailarako gaixo eta elbarrituen konbibentlia**

Igandean, hilak 9, bailarako gaixo eta elbarrituak Elgoibarren elkartuko dira Elgoibarko Osasunaren Pastoralak antolatutako konbibentzian parte hartzeko. Eguerdiko 12:30ean Parrokian meza entzun ondoren, ordu biak aldera lagunarteko bazkaria izango dute Gure Bide elkartearen.

• **Anormda eta builmlari burtako hitzaidia**

Haizea Emakume Taldeak antolatuta, gaur egun pil-pilean dagoen builnia eta anorexia nerbio-soari burunako hitzaldia izango da, gaur, hilak 7, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Gai honi buruz hitz egiteko Mertxe San Nieolas psikologoa eta terapeuta gonbidatu dute. Hitzaldia iluntzeko 19:30ean hasiko da.

• **11Bren mitin nadonalerako autobusa**

Larunbatean, hilak 8, HBk mitin nazionala egingo du Bilbon arratsaldeko 18:30ean. Ekitaldian duela gutxi hil diren Mahai Nazionalako kideak ziren "Txo" eta "Pitote" eta preso izandako Santi omen-dukido dituzte. Arratsaldeko 17:00etan autobusa aterako da Plazatik Bilbo aldera.

• **Kondid Lehlaketaren sari banaketa**

Igandean, hilak 9, Kokoe Komiki Elkarteak antolatutako Iehiaketa- ren sari banaketa egingo da Kultur Etxean eguerdiko 12:30ean. Lehiaketan 15 komikigile ezberdinek hartu dute parte. Irabazleak 100.00 pta.ko saria jasoko du eta euskarazko lehen komikiak, berriz, 30.000 pta. Lehiaketan parte hartu duten komiki guztiak ikusteko azken eguna igandea izango da.

• **"Cafe teatrou eta "El deaven del mache Gaztetxean**

Bihar, larunbata, bi taldek kontzertua emango dute Gaztetxean: "El desvan del macho" arrasatearrak eta "Cafe teatro" taldeak. Kontzertua doan izango da gaueko 22:30ean hasita.

• **Bilera Kimelz elkartearen**

Datorren asteazkenean, hilak 12, bilera egingo da Kimelz elkartearen arratsaldeko 20:00etan. Hil hone- tan Elgoibarko presoek gartzelan 13 urte daramatela beteko denez, ekitaldiak prestatzeko antolatu dute bilera. Herritarrei bilerara joateko eskatzen zaie ahalik eta parte- hastze handiena lortze aldera.

• **HIESari burozko informazio eta prebentzio topaketak**

Drogomenpekotasunen Prebentziorako Errotatxo Elkarteak HIESari burozko informazio eta prebentzio topaketak antolatu ditu hilaren 17tik 23ra bitartean. Egun horietan zehar erakus- keta egongo da Gaztetxean "Fiebres de viernes noche" izenburupean. Honez gain, hitzaldiak, zine kluba, bertsolariak, antzerkia eta beste ekitaldi batzuk egingo dira. Hilaren 23an, igandea, omenaldia egingo zaie HIESa dela eta hil diren guztiei.

• **Zazpikiren bilera**

Bihar, hilak 8, Zazpiki irratikoek bilera egingo dute Ganbaran eguer- diko 12:00etan. Tratatzaletu guztiei bilerako dei egingo zaie.

114

71.

415

ON zine



Zuzendaria: V. Sehliondorff
Antzezleak: J. Malkovich, A. Mtk-
ker, Goffried John.

Ei ogro

Mekaniko frantses bat atxilotu egiten dute ustez neskatala bati tratu txarrak emateagatik. Gartzelan dagoela, nazien aurkako frantses tropen kide izatera behartuko dute. Naziek preso egiten dute eta alemaniarren ejerzitoko nagusiaren etxera lanera eramango dute. Beranduago gazteak Intlerismoan hezitzen dituzten eskola batera eramango dute zerbitzari modura.

1 1

FARMAZIAK

Egunez Gaez

8 Etxeberria * Zabaleta
(Errosario)

9 Etxeberria * Zabaleta
(Errosario)

10 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalea)

11 Etxeberria Escala
(Errosario)

12 Bidasolo Bidasolo

13 Yudego Yudego

14 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalea)

* (eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 75 16 38

ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA
9 igandea Fotero

Salerosketak

• SALDU•

- Errepideko bizkleta salgai. Shimano 105. Egoera onean. tr 74 07 85.
- SIGMA garbigailua eta kirten bateko kafetera express elektrikoa saltzen ditut, ir 74 39 75.
- Bigarren eskuko diskak eta liburuak saltzen ditut. Prezio interesgarria. Zerrenda ikusi nahi haduzu, deitu. tr 74 12 04
- Erosi berria eta crabili gahe dagoen "Play Station" konsola saltzen dut oso prezio onean. ir 74 26 94 (iaki)
- 90 cm.ko 3 modulo, 90 cm.ko burutegia, 2 siloi (3+2), hi mahai (erdikoa eta izkinarako), alfonhrra bat eta lau lanpara saltzen ditut. [Berri-heniak](#). tr 12 19 46
- "Grandes tnaestros de 1a pintura moderna" bilduma salgai. Estrenatu gahe. 12 tomo. tr 74 40 85 (gauetz)

• EROSI•

1 Txahola erosiko nuke Elgoibarren edo inguruan. tr 74 37 87

Bestelakoak

- Begi urdindun katu txuria aurkitu dut. Lau hilabete inguru ditu. ir 20 20 18.
- Forro polar urdin iluna topatu nuen Madalan. Galdu duenak jo dezala Udattzaingora.
- 1 62 metro karratuko lokala alokatzen edo saltzen da Kalamua 7an. s 74 18 94/ 945 27 78 08
- Zapatuan urrezko pultsera galdu nuen. e' 74 31 44
- Astelehenean, hilak 20, urrezko seilu bat galdu nuen L.Z. iniazialekin. tr 74 18 08 (Leire)
- Volkswagen markako giltza galdu dut. s 74 05 32
- Taherna truspasatzen da Dehan. Martxan dago eta hezero onak ditu. Orain dela gutxi herritua. 74 19 19 54
- Ileapaindegia alokatzen da Bergaran. tr 76 56 85.
- "Adidas One" txandal urdin baten goiko partea galdu dut Ikastola edo Plaza aldean. 14 tailakoa da. te 74 22 30
- Hamster hat oparitzen dut kaiola eta guzti. tr 74 25 17
- Merkantziak, hidaiariak eta laguntzaileak garraiatzeko kapazitatez titulak daukat. Interesatuak deitu 74 38 15 zenhakira.

Partikularrak

- Alemanezko klase partikularrak ematen ditut. tr 74 00 98
- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak hartuko nituzke euskaraz. s 74 27 78 (Sara)
- Lizentziatuak fisika eta kitnikako klase partikularrak emango tuzke. Maila guztiak. tr 74 43 98/74 08 09 (Marian)
- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak ematen dira. 74 43 98 (Iliaki)
- Fisika eta matematika klase partikularrak ematen ditut. tr 74 13 34 (Andoni)

Lana

ESKAINITZA

- Neska hat behar da tabernako barran eta jantokian lan egiteko. tr 74 45 34 (Jose)
- Mutil hat behar da astehuruetan lan egiteko. ir 74 02 41
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. tr 74 32 94

ESKAERA

- Lokal handiak garhitzeko emakumea eskaintzen da. Espedentzia daukat. tr 74 39 75 (Arrate).
- Esperientziadun neskek etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko lituzke. s 20 06 94 (Monse)
- Sukaldaria eskaintzen da 15 urteko esperieMziarekin. te 15 08 38 (Angel)
- Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informeeqtn. tr 58 40 31 (Elgoihar)
- Neska gaztea eskaintzen da etxebizitzak, portalak, bulegoak eta bestelakoak garhitzeko. Esperientzia daukat. tr 74 06 09 (Marisabel)
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. te 74 07 32 (M. Angeles)
- Neska euskalduna eskaintzen da tabernan lan egiteko edo umeak [zaintzeko](#). [Esperientziarekin](#). tr 17 47 70
- Emakumea eskaintzen da gaixorak edo umeak zaintzeko. [Esperientziarekin](#). tr 17 47 70
- Gizona eskaintzen da pulidore lanak egiteko. s 17 47 70
- Mutil gaztea eskaintzen da 2. mailako igeltsero edo enkofratzaile lanak egiteko. tr 17 47 70

Etxebizitzak

- Etxea salgai Santa Ana kalean. Berritua dago. tr 929 43 24 22 (arratsaldeko betatik aurrera).
- Etxebizitza salgai Dehan. Alameda parean, hondartzatik 50 metrorra. [Berritua](#). tr 908 57 95 89
- Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzariekin. tr 74 00 65
- Etxea alokatzen da Erretxindin, atnueblatua.117 74 22 25
- Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Igerilekua, aparkalekua, garhigailua eta telebista ditu eta hondartzako lehen ilaran dago. tr 74 20 31

Garajeak

- Garaje itxia alokatzen da Pista Beltzean.14 74 03 81
- Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. tr 74 27 89
- Garaje marraduna saltzen dut Karakolaren azpian. Garajes Madarixa, tr 74 04 34
- Garaje itxi hat saltzen dut King-Kong-en, tr 76 17 95
- Garajea saltzen da Juan Mugerza kalean. tr 74 12 04
- Pista heltzean garaje itxia alokatzen dut. tr 74 03 81/ 74 15 01 (Gauetz)
- Garajea alokatzen da San Roquen, Aterpe tabernaren azpian. tr 74 33 39
- Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean. ir 74 05 49 /74 09 09

Agurrak

- ♦ Zorionak Patriri hilaren 6an 14 urte haundi bete zituelako eta orain dela gutxi bete zen lehen hiruhilabeteakoagatik. Mendaroko 5 Iagunen partez. Zorionak Postari!
- Zorionak Ane De la Aradari azaroaren 5ean 2 urte bete zituelako. Guraso, aitxixta, amama, osaba eta lehen-gusuen partez.
- Zorionak Sandra Reverti hilaren 5an 5 urte bete zituelako. Saioa eta Erikaren partez.

Agurrak

- Zorionak Ana Mari zure urtebetzean Itsaso eta Iilgoren partez.
- Zorionak Patxiri hilaren 10ean urteak beteko dituelako. Alaba Enara eta lagun Elorri eta Nerearen partez.



Leire alaben partez.

- Zorionak Arantxa Mendikuteri azaroaren 4an urteak hete zituelako. Bere senarraren eta seme-alaben partez.

- Zorionak Arantxa Astiazarani hihar, hilak 8, hogeita hamapiku urte hetreko dituelako. Senarñuen eta Ainhoa eta



- ♦ Zorionak Aritz Cerezori hilaren 12an hi urtetxo heteko dituelako. Guraso eta aiton-amonen partez.



- Zorionak Ion Rodriguezi hilaren 1 In 8 urte heteko dituelako. Bere arreha Eiderren eta gurasoen partez. Egun ona igaroz dezazula!



ñatan partez.

- Zorionak Saioa Gonzaiezi hilaren 3an 10 urte hete zituelako. 5. mailako guztien partez. Zorionak, baita ere, Sigmako lagun guztien partez.



- Zorionak Zaloa Fuentesi hilaren 3an urteak bete zituelako. Guraso, anai-arreba eta koinatuaren partez.
- Super Zorionak Zaloa Fuentesi azaroaren 3an urteak hete zituelako. Ikastolako 6D gelakoen partez.



..eta qainera
PINTXOAK!


San Frantzisko, 60
Tel: 74 19 43



B&T

ES ACION

San _nazll@, 9
Tel: 71 15 3A



Eguneroko menuak

Menu bereziak

Kar a

Kazuelaixoak

(31kariethaAo enkar_guak


e_gae aukera)

KON SUL AIGUZU

Azaroaren 2an

irekik® dugu

LEIHOAK ISOLATZEN DITUGU



GLASHER ®

ALTZAIRU INOXIDABLEZKO
BURLETEAK dira, leihoa
isteaz bat tentsatu eta
zirrikitu guztiak estaltzen
dituztenak, haizea, hotza,
hautsa eta zarata eragotziz.

Hailea, holza, hautsa eta zaralen kontra

Berogailutan aurrezpena • ipintzeko azkarra eta garbia • amaigabeko iraupena

INPERMEABILIZANTEEN ATALEKO SAILA



Soluzioa, siku-sikuan

Hezetasun arazoak terrazetan, estalkietan, sotanoetan,
garaleetan, hormetan, etabs
Transitableak, elastikoak, transparenteak, dekoratiboak.



Glos cctrlro

Tel: 74 30 94

Ubitarte, 7 behea